

Langabetuak edota oinarritzko errenta jasotzen dutenak kontratatzeko ohiz kanpoko laguntzak: ELAk 2009ko azaroaren 25eko aginduaren balorazioa

Eusko Jaurlaritzak azaroaren 27ko EHAA 7.000 lagun kontratatzeko 63 milioi euro bideratzen dituen agindua argitaratu zuen. Kontratu horiek ordaindutakoaren arabera langabezia-prestaziorik ez duten langabetuak edota oinarritzko errenta jasotzen duten pertsonak hartzeko izango dira, eta Jaurlaritzak langile eta hileko 1.500 euroekin lagunduko ditu, sei hilabetez.

Zer irizten dio ELAk honi?

1. **Erabat arbuiazen dugu hainbesteko dirutza enpresak finantzatzen erabiltzea.** Izan ere, kontratu bakoitzeko hileko 1.500 euro emanda Jaurlaritzak enpresei aldi baterako kontratuak ordaintzen dizkie. Enpresa askori honelako kontratuak egitea ia doan aterako zaie, aparteko esfortzurik gabe.
2. **Plan hau kolokako enpleguaren aldeko apustua da.** Kontratuek gehienera ere 6 hilabetez iraungo dute. Urtebete lan bera egiteko bi pertsonaren kontratua diruz laguntzeko aukera ematen du, sei hilabetez. Aldi baterako lanpostuak laguntzen dituzte diruz, egonkortasun esperantzarik gabe, eta diru publiko mordo bat erabiliz. Helburua ez da kontratatutako jendeak lanean jarrai dezan, ezta kalitatezko enplegu egonkorrak sortzea ere.
3. **Jaurlaritzak kontratazio iruzurtia sustatzen du.** Administrazioak kontratuetan egiten den iruzurrari aurre egin beharko lioke, eta oraingoan aldi baterako kontratazioarentzat pizgarriak ematen ditu, legez kanpo dagoen arren. Honela kolokako enpleguan EBrekiko dagoen alde handia areagotu besterik ez da egingo.
4. **Diruaren zati handi bat enpresa pribatuentzat izango da.** Sinestarazi nahi badute ere dirua udal edo mankomunitateetara bideratuko dela, argi jasotzen da finantzazioa enpresa pribatuetara joango dela. Areago, udalei dagokienez paragrafo bat gehitu dute: "*diru-laguntza jasotzen duen erakunde publikoak enpresa pribatuekin kontratatu ahal izango du jarduera gauzatzea. Kasu horretan diru-laguntzaren zenbatekoa lana hartu duen enpresak egin behar duen jarduerarekin lotutako kontratu berriak finantzatzeko izango da*". Hots, kasu hauetan tokiko herri-erakundeetaz ari diren arren, diru-laguntza enpresa pribatuetara joango da.
5. **Kontrol sindikala saihestu nahi du.** Bi eguneko epe eskasa jasotzen da dagokion herri-erakundeko enpresa- edo langile-batzordeak txosten bat egin dezan; txostenak argituko du kontratu berri horrekin laguntza

eskatu duen erakundeko ohiko jardueraren bat ordezkatzeko den edo ez. Epea gaindituz gero, baldintza hori betetzat emango da.

6. **Sindikatuak ordezkariak eskubidea urratzen da.** Jarraipen batzorde bat eratuko da, baina "Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren esparruan". Ordezkaritza duten sindikatuak baztertu egiten dituzte baliabide publikoekin finantzaturako Jaurlaritzaren plan bat kontrolatzerakoan. Honek islatzen du Jaurlaritzak sindikatuak ordezkariak mailarekin duen errespetu demokratikoa hutsaren hurrengoa dela.
7. **Interes orokorreko edota gizartearentzat erabilgarri diren jarduerak zer diren erabak zehaztu gabe geratzen da.** Hau iritziz subjektiboa da, edozer estal dezakeena. Jarduera zerrenda luze bat aipatuagatik, zehaztu gabeko beste batzuk ere sar daitezke. ELAk gauza bat exigitzen du: Ustez interes orokorreko diren jarduerak horiek administrazio publikoak har ditzala bere gain, kontratu finkoa duten langileekin.
8. **Egoerarik ahulenean dagoen jendearekin jolasean dabilta.** Aginduak dioen arren kontratatuen %30 oinarritzko errenta jasotzen duen jendea izango dela, testuak berak aukera ematen du portzentaje hori bete ez dadin.

Bilbon, 2009ko abenduaren 9an